

Historia Ezagutzeko Zentroa

Centro de Interpretación Histórica

Noviembre/Azaroa 2011 • D.L.: Bi-1446-05 • Ale Kopurua/tirada: 2.000

n.º 7



■ H. E. Z. / C. I. H.	2
• Sarrera / Introducción	2
• Zerbitzuak / Servicios	2
1. Berezoari arreta / Atención al cliente	2
2. Bisita gidatuak / Visitas guiadas	2
3. Ugao-Miraballesko lagunak / Amigos/as de Ugao-Miraballes	3
4. Dokumentazio zentroa / Centro de documentación	3
5. Eskola programa / Programa escolar	4
6. Jarduerak / Actividades	4-9
■ Ugao-Miraballeseko naturaren gida / Guía de la naturaleza de Ugao-Miraballes	10
■ Ugao-Miraballes atzo eta gaur / Ugao-Miraballes ayer y hoy	11
■ Zure gunea / Tu espacio	12



Sarrera Introducción

Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroak ekainean bete ditu hamar urte. Zentroa sortu zen hiribilduaren ibilbide historikoa azaltzeko, 1375ean eraiki zutetik gaur egunera arte, eta eskualdeko natura- eta kultura-ingurunea interpretatzeko.

Hamarkada horretan, ehunka bisita egin dituzte zentrorra eta herritaren laguntzari esker hainbat ekintza desberdin gauzatu dira. Horregatik, hiribilduaren pertsonekin elkarlanean jarraituko du, hainbat belaunaldiren artean historiari buruzko jakin- nahia eta naturarekiko errespetua sustatzeko.

El Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes cumplió el pasado mes de junio diez años de andadura. Este Centro nació para mostrar el recorrido histórico de la villa desde su fundación en 1375 hasta nuestros días y para interpretar el entorno natural y cultural de la comarca.

A lo largo de toda esta década el centro ha recibido centenares de visitas y se han realizado acciones de distinta naturaleza, gracias a la colaboración del pueblo. Por eso el CIH continuará trabajando junto con las personas de la villa para fomentar la curiosidad por la historia entre las diferentes generaciones y el respeto por la naturaleza.

Zerbitzuak / Servicios:

1 Bezeroari arreta

Historia Ezagutzeko Zentroak erakusketa iraunkorra du, hiribilduaren eta eskualdearen bilakaera azaltzen duena, hainbat alderdiri erreparatuta. Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentrorra —Jane Jauregiko

beheko solairura— etortzen den orok erakusketa hori ikusteko aukera du (ikus ordutegiak) eta kanpoko bisitaldi gidatua eska dezake. HEZera gerturatu denak bertako zerbitzuak zuzenean erabiltzeko aukera du; horretaz gainera, Internet bidez ere eskura daitezke zerbitzu horiek. Gure web-orrian, www.ugao-miraballes-museoa.org, zentrorri bu

ruzko edozer informazio aurkituko duzue; zuen iritziak, iradokizunak eta kexak adierazi ahal izango dituzue; eta informazioa eskatu eta/edo Ugao-Miraballesko Lagunak taldearen kide egin zaitezke.

2 Bisita gidatuak

Taldekako bisitaldi gidatuak bi zatitan banatuta daude. Lehenik eta behin, museoa ikusiko dugu. Gidariak Ugao-Miraballesi buruzko informazioa emango digu: kokapen geografikoa, hiribilduen jatorria, Erdi Aroko bizimodua eta ohiturak, etab. Ondoren, ibilbide gidatua egingo dugu udalerrian zehar.

Eskerrik asko zuen konpantiagatik!

ELKARTEEN, PRESTAKUNTZA-ZENTROEN ETAEUSKALTEGIEN BISITALDIAK

2010-2011n Historia Ezagutzeko Zentroak bisitaldi bereziak antolatu ditu Bizkaiko AVIFES elkartearekin, OTXARKOAGA PRESTAKUNTZA ZENTROAREKIN, eta ARRIGORRIAGA-UGAOKO UDAL EUSKALTEGIArekin, kanpoko ibilbide antzetzua duten bisitaldiak eskaintzeko.

1 Atención al cliente

El CIH cuenta con una exposición permanente donde se refleja la evolución de la villa y de su comarca en sus diferentes aspectos. La persona que se acerque hasta el C.I.H de Ugao-Miraballes, planta baja del Palacio Jane, tiene la posibilidad de visitar esta exposición (ver horarios) y solicitar una visita exterior guiada. Quien se acerque puede solicitar de forma gratuita información sobre rutas culturales y montañeras por la comarca, así como folletos turísticos de diversa índole, que le servirán de gran ayuda a la hora de planificar diferentes escapadas por Euskal Herria.

A través de nuestra página web, www.ugao-miraballes-museoa.org podéis informarnos de todo lo relacionado con el centro y hacernos llegar vuestras opiniones y sugerencias, así como solicitar información y/o hacerte miembro del grupo “Ugao-Miraballesko Lagunak”.

2 Visitas guiadas

Las visitas en grupo se dividen en dos partes. Primero se visita el museo, donde el/la guía da unas explicaciones generales sobre la situación geográfica de Ugao-Miraballes, el origen de las villas, vida y costumbres de la edad media, etc., y seguido se realiza un itinerario guiado por el municipio.

¡Gracias por vuestra compañía!

VISITAS DE ASOCIACIONES, CENTROS DE FORMACIÓN Y EUSKALTEGIS

El centro ha realizado visitas especiales en este 2010-2011 con la Asociación Vizcaína AVIFES, el CIP de OTXARKOAGA y con el EUSKALTEGI MUNICIPAL ARRIGORRIAGA-UGAO ofreciendo visitas con recorrido exterior teatralizado.



LAUDIOKO IKASTOLEN BISITALDIAK

2011ko urtarrilean eta otsailean, Laudioko ikastole-tako Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleek bide-hezkuntzako saio praktikoak egin dituzte gure udalerrian, Laudioko Udaltzaingoaren eskutik. Talde horiek zentroa bisitatu dute, hiribilduaren bilakaera ezagutzea eta historia aztertzeo jakin-mina sustatzea helburu hartuta.

Taldeak trenez etorri dira Ugaora, programaren arduradunek gidaturik, eta tren-geltokian Ugao-Miraballesko Udaltzaingoaren arduradunak arreta eman die. Guztira, 5 ikastolak hartu dute parte, 15 bisitaldi egin dira, eta 308 ikaslek gure herria ezagutu dute.

3 “Ugao-Miraballesko lagunak”

Ugao-Miraballesen Historian eta bertoko ingurumenean interes berezia duten pertsonak batzea da talde honen asmoa.

Gaur egun, dagoeneko hirurogeita hamar kide ditu. Zuk ere kide izan nahi baduzu, bete azken orrialdean aurkituko duzun fitxa, eta hurrengo abantailak izango dituzu:

- Informazio zuzena zentroan egiten ari denaz, eta etorkizunean izango diren jarduerak.
- *Ugao-Miraballesko Lagunak* taldeko kideentzat baino ez diren jardueretan esku hartzea.
- Beste taldekide batzuekin proiektuak egitea Historiari eta/edo Ingurumenari buruz zentroaren laguntzarekin.

4 Dokumentazio zentroa

Erakusketarekin zerikusia duten dokumentu, argazki edo lanabes zaharrak gurera ekartzen jarraitzeko eskatzen dizuegu, zuen historia hiribildu honen historiaren zatia data. Hemen berritu egingo ditugu, eta erakusketan ipini. Argazki bakoitzeko 15x18ko handiagotze bat oparituko dizuegu. Bestalde, Zeuk erabakiko duzu noiz itzuli eta laga duzun pieza bakoitzaren ondoan zure izena agertuko da.

VISITAS DE LAS IKASTOLAS DE LAUDIO

Durante los meses de enero y febrero de 2011, escolares de segundo ciclo de primaria de las ikastolas de Laudio, han realizado en nuestro municipio sesiones prácticas de educación vial de mano de la policía municipal de Laudio. Estos grupos han visitado el centro con el objetivo de conocer la evolución de esta villa y estimular así su curiosidad por el estudio de la historia.

Los grupos guiados por los responsables del programa, se acercaban a Ugao en tren donde les atendía el responsable de la policía municipal de Ugao-Miraballes. En total han sido 5 ikastolas las que han participado, divididas en 15 visitas y 308 alumnos/as.

3 Grupo de amigos/as “Ugao-Miraballesko lagunak”

Este grupo pretende unir a aquellas personas que tengan un interés especial en la Historia y medio ambiente de Ugao-Miraballes.

Si tú también quieres formar parte, rellena la ficha que encontrarás en la contraportada y podrás beneficiarte de las siguientes ventajas:

- Información directa sobre lo que se hace en el Centro y sobre las actividades que se desarrollarán.
- Participaren actividades destinadas exclusivamente a miembros de *Ugao-Miraballesko Lagunak*.
- Desarrollar junto a otros miembros del grupo proyectos sobre la Historia y/o Medio Ambiente, con la colaboración del Centro.

4 Centro de documentación

Os invitamos a que nos sigáis trayendo aquellos documentos, fotografías o utensilios antiguos, ya que vuestra historia forma parte de la historia de esta villa. Aquí los restauraremos y los añadiremos a la exposición. De cada fotografía se os regalará una ampliación de 15x18. Además tú decides la fecha de devolución y tu nombre aparecerá al lado de cada pieza que hayas cedido.

5 Eskola-programa

UNITATE DIDAKTIKO BERRIAK

Historia Ezagutzeko Zentroak eskola-programa bat dauka Arratia-Nerbioi eskualdeko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. 2011n hiru unitate didaktiko diseinatu dira, multimedia elementuak (animazioak eta Interneten ibiltzea) uztartzen dituztenak: "Ezagutu Kerman bufoia", "Abenturak Errege Bidean" eta "Ibilbide bat Bizkaiko erdi Aroko hiribilduetatik".

Programa horren bidez, alde batetik, haurrek hiribilduaren eta eskualdearen Erdi Aroko garaia hobeto ezagutzea eta historia aztertzekeo interesa eta historiarekiko errespetua sustatzea nahi dugu, eta, bestetik, Historia Ezagutzeko Zentroa hezkuntzarako tresna gisa erabili nahi dugu, ikastetxeekin lankidetzan arituz, eskola-curriculumarekin eratzeko. Orozkoko, Urduñako, Galdakaoko eta Ugao-Miraballesko umeeke gure dinamikekin oso ondo pasatu dute. Txikiak iragana ezagutzeko eta etorkizun on bat eraikitzekeo asmoz lanean jarraituko dugu.



6 Jarduera irekiak

Hauxe izan dira Zentroak antolatutako ekintzak:

BIZKAIKO KULTURA-ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK

2010eko urrian zehar, Bizkaiko zenbait udalerrikberren ondarea ezagutzeko aukera eman zuten, jarduerara batzuen bidez. Hamargarren edizio horren gaia "Artea eta pentsamendua" izan zen.

Ugao-Miraballesko artearen espiritualitatea ezagutzeko aukera eman zuten hiribilduak, Historia Ezagutzeko Zentroak gauzatutako jarduera hauen bidez:

- **"BEHIN BATEAN UGAON"**

Urriaren 1ean, Udiarragako Andre Mariaren ermitan ipuin-kontalari batek Ugaoko historiari lotutako elezaharrak eta ipuinak kontatu zituen, haurrei hiribilduaren ondarearen berri emateko.

- **LEHENENGO HERRI IGOERA UDIARRAGA AUZORA**

Urriaren 16an, berrogei txangozalek osatutako taldea joan zen gure zaindari Udiarragako Andre Mariaren istorioa hasi zen lekura. Ermitaren jatorrizko lekutzat jotzen den tokian bi pertsonaia berezi zeuden kontukontari: Beltran eta Juana, erromesak eta Ama Birjinarenganako jaieradunak. Andre Mariarenganako debozioaren jatorria azaldu ziguten, eta gure hiribilduari lotutako Erdi Aroko elezaharrak kontatu zizkiguten, Iñaki Garcia herritarraren laguntzaz. Igoera gogorraren ostean indarrak berritzeko, Salbidetarrek janari gozoak eskaini zizkiguten familiaren baserri dotorean. Eskerrik asko zuen laguntzagatik!

- **HIRIBILDUA IKUSTEKO BISITA GIDATUA ETA TESTIGANTZEN BIDE-EMANALDIA ERMITAN**

Urriaren 23an, oso bisitaldi berezian parte hartu zuten 27 lagunek, Manuel Cifuentes Pazos, haurtzaroa Ugaon egin zuen historialaria, izan baitzuten bide-erakusle. Gidari bikain horrek aberastu zituen hiribilduko eta ermitako ondare material eta mate-

5 Programa escolar

NUEVAS UNIDADES DIDÁCTICAS

El CIH ofrece un programa escolar dirigido a estudiantes de Educación Infantil y Primaria de la comarca de Arratia-Nerbioi. En este 2011 se han diseñado tres unidades didácticas que integran elementos multimedia (animaciones y navegación en Internet): "Conoce a Kerman, el bufón de la corte", "Aventuras por el camino Real" y "Un paseo por la villas vizcainas".

Con este programa pretendemos por un lado acercar a los niños y niñas al periodo medieval de la villa y de la comarca y estimular el interés por el estudio y respeto de la historia. Y por otro utilizar el Centro de Interpretación Histórica como herramienta educativa cooperando con los colegios en la formación del currículo escolar.

Niños y niñas de Orozko, Orduña, Galdakao y Ugao-Miraballes se han divertido con nuestras dinámicas. Seguiremos trabajando para que los más pequeños conozcan el pasado y construyan un buen futuro.



6 Actividades abiertas

Estas son las actividades que ha organizado el Centro:

JORNADAS EUROPEAS DEL PATRIMONIO CULTURAL DE BIZKAIA

A lo largo del mes de octubre de 2010 diferentes municipios vizcaínos ofrecieron la posibilidad de dar a conocer su patrimonio a través de una serie de actividades. El tema de esta décima edición fue el "Arte y Pensamiento".

Ugao-Miraballes ofreció conocer la espiritualidad del arte que alberga la villa con las siguientes actividades desarrolladas por el CIH:

- **"BEHIN BATEAN UGAON"**

El día 1 de octubre en la ermita de Ntra. Sra. de Udiarraga un Cuentacuentos infantil narró leyendas y cuentos relacionados con la historia de Ugao y de la ermita de Udiarraga para dar a conocer a los más pequeños el patrimonio de la villa.

- **PRIMERA SUBIDA POPULAR AL BARRIO DE UDIARRAGA**

El 16 de octubre un grupo de cuarenta excursionistas se dirigieron al lugar donde comenzó la historia de nuestra patrona, la virgen de Udiarraga. En el supuesto lugar originario de la ermita dos personajes muy "especiales" Beltrán y Juana, peregrinos y devotos de la virgen, nos contaron los orígenes de la devoción a la virgen y leyendas medievales relacionadas con nuestra villa, con la ayuda del vecino Iñaki Garcia. Para reponer fuerzas después de la dura subida, la familia Zalvide nos deleitó con ricas viandas en su precioso caserío ¡Muchas gracias por vuestra colaboración!

- **VISITA GUIADA POR LA VILLA Y PROYECCIÓN DE TESTIMONIOS EN LA ERMITA**

El 23 de octubre un grupo de 27 personas participó en una visita muy especial por la villa, conducida por Manuel Cifuentes Pazos, vecino de la infancia de

riagabeari buruzko bisitarien ezaupideak. Halaber, hiru herritarrei egindako elkarrizketen bideoak eman ziren: Juan Goikoetxeak, Iñaki Salbidek eta Carmen Loresek kontatu ziguten nolakoak ziren, haien gaztaroan, Ugao-Miraballesko bizimodua eta ohiturak.

UGAO-MIRABALLESKO VI. MIKOLOGIA JARDUNALDIAK

Beste urte batez, udazkena heltzearekin, Ugao-Miraballesen VI. Mikologia Jardunaldiez gozatu genuen. Larunbatean, azaroaren 13an, goizeko 8etan Jane jauregian hasi zen programa. Ugao Mendi Taldeko kideak eta zaletuak han bildu ziren, elkarrekin mendira joateko, perretxikotara. Arratsaldean, 16:30ean, Jane jauregiko teilatupean hainbat txangozale eta herritar elkartu ziren, bildutako perretxikoak sailkatzeko. Saiklapena zuzentzeko, Juan Andres Roman Etxebarria eta Francisco Javier Calvo Perez mikologo-oen laguntza eskerga izan genuen. Biak ere ospe handiko adituak dira, www.fungipedia.es weborri espezializatuaren sortzaileak. Saiklapen horretaz baliaturik, parte-hartzaileek erakustaldi bat prestatu zuten azaroaren 14rako. Aurreko urteetako markak hautsi zituzten, bai espezie-kopuruari (208 espezie) bai perretxikoen edertasunari erreparatuta.

Berriz ere aipatu behar dugu herritarren erantzunari esker ekimen hori "udazkeneko egutegiko ohiko jarduera" dela, haur eta helduen artean. Jakin badakigu askok eta askok benetako ahaleginak egiten dituztela, bai jardunaldien aurretik, bai saiklapena egiteko garaian, kalitatezko emaitzak lortzeko.

Jardunaldien helburua da, perretxiko-motak aztertu eta ezagutzeaz gain, zaletuei aholku batzuk ematea; izan ere, azken urteotan, 'modan' dagoen jarduera da. Zaletuei eskatzen zaie "kopuru handiak ez bilztea, natura-baliabide mugatua baita, basoak behar-beharrezkoa duena".

PERRETXIKOEN EGINDAKO PINTXOEN LEHIAKETA

VI. Mikologia Jardunaldietako programan jarduera berri bat sartu da aurtien: pintxo-lehiaketa. Sukalderitza-lehiaketan 8 ostaturik parte hartu zuten, eta, guztira, 14 pintxo aurkeztu zituzten lehiaketara. Bai profesionalen epaimahaiko bozketek, bai herriepaimahaikoek adierazi zuten aurkeztutako sukaldaritzako laginen maila aparta zela. Pintxo garailea Itsasoa izan zen; haren egilea, Massi Jatetxea. Bihotzez eskertzen dugu ostalariek ekimen horretan jarritako eginahala eta gogo handia.

IV. ARBOLAREN EGUNA 2011

Ugao-Miraballesko Udaleko Ingurumen Sailarekin eta Aitama elkartearekin lankidetzan, Historia Ezagutzeko Zentroak Ugao-Miraballesko Arbolaren IV. Eguna antolatu zuen martxoaren 25ean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak Arbolaren egun ofiziala izendatu zuen martxoaren 21a. Ugao-Miraballesen oraingoan ere ospatu nahi genuen, eta, horretarako, bertako zenbait zuhaitz-espezie aldatu genituen Leitoki parkean. Gainera, haurrentzako tailerrak egin genituen, apaingarri naturalak lantzeko. Txikiak gogoz aritu ziren, zuhaitz bat landatzeak dakarren ikasketaz gozatzen; eta handiagoak —aurreko urteetan parte hartu zutenak— beren gisa aritu ziren, ia-ia monitoreen lagun tzarik gabe.

Parte-hartzaile guztiei diploma bana eta askaria eman zitzaizkien, ingurumena zaintzeko egindako ekarpena saritzeko.

Ugao e historiador. Este excelente guía enriqueció nuestros conocimientos sobre el patrimonio material e inmaterial de la villa y de la ermita. También se proyectaron tres videos de entrevistas mantenidas con los vecinos y vecinas Juan Goikoetxea, Iñaki Zalbide y Carmen Lores que nos contaron la forma de vida y tradiciones de Ugao-Miraballes en su juventud.

JORNADAS MICOLÓGICAS DE UGAO-MIRABALLES

Un otoño más Ugao-Miraballes celebró las VI. Jornadas Micológicas de la villa. El programa comenzó el sábado día 13 de noviembre a las 8 de la mañana en el Palacio Jane, donde los aficionados y miembros del Ugao Mendi Taldea se reunieron para salir juntos al monte a buscar setas. Por la tarde, a las 16:30 horas, en el ático del palacio Jane, se reunieron muchos de los excursionistas y vecinos/as para realizar la clasificación de las setas recogidas. Para dirigir la clasificación se contó una vez más con la inestimable ayuda de los micólogos **Juan Andrés Román Etxebarria y Francisco Javier Calvo Pérez**, grandes expertos y creadores de la página web especializada www.fungipedia.es. Con esa clasificación los participantes elaboraron una exposición para la mañana del 14 de noviembre que batió el record de ediciones anteriores, en cuanto a número de especies, un total de 208, y en cuanto a belleza. Una vez más, cabe destacar que ha sido precisamente la respuesta entre los habitantes del municipio la que ha permitido fijar esta iniciativa como una actividad "ya habitual para el calendario de otoño" entre niños/as y mayores. Nos consta que muchos hacen verdaderos esfuerzos días antes de las jornadas y durante la clasificación para que estas sean de calidad. Las jornadas nos solo persiguen estudiar y conocer la variedad de setas, también se quieren aprovechar para trasladar una serie de consejos a los aficionados a esta actividad, que se ha puesto prácticamente 'de moda' en estos últimos años. Se invita a los aficionados a "que no se recolecten grandes cantidades, ya que es un recurso natural limitado e imprescindible para el bosque".

CONCURSO DE PINCHOS ELABORADOS CON SETAS

El programa de actos de la VI. edición de las Jornadas Micológicas, incorporó este año como novedad la convocatoria de un concurso de pintxos.

En el certamen culinario, participaron 8 establecimientos hosteleros y el total de pintxos presentados a concurso fue de 14. Tanto las votaciones del jurado profesional como las del jurado popular dieron cuenta del alto nivel de las muestras culinarias presentadas, resultando ganador último el pintxo "Itsasoa", elaborado por "Massi Jatetxea". Agradecemos el esfuerzo y entusiasmo de los hosteleros que participaron en esta iniciativa.

IV. DIA DEL ÁRBOL 2011

El CIH con la colaboración del área de Medio Ambiente del Ayuntamiento de este municipio y la Asociación Aitama, organizó el viernes 25 de marzo el "IV. Día del Árbol en Ugao-Miraballes".

El 21 de marzo el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia tiene asignado como día oficial del árbol. En Ugao-Miraballes quisimos celebrarlo una vez más plantando diferentes especies de árboles autóctonos en el parque Leitoki y realizando unos talleres infantiles con motivos naturales. Los más pequeños disfrutaron del aprendizaje que supone plantar un árbol y los más mayores que habían participado en ediciones anteriores lo hicieron ellos mismos sin apenas ayuda de los monitores.

A los/as participantes se les premió con un diploma en reconocimiento a su aportación en el cuidado del medio ambiente y con una merienda.



HERRI-ANTZERKIA: VILLANUEVA DE MIRABALLESEN SORRERA

Ugao-Miraballesek azaroan amaitu zituen hiribilduaren sorreraren 635. urteurrena ospatzeko ekitaldiak, eta azken jarduera antzezlan berezi bat izan zen: 1375ean gertatutako jazoerak —gure hiribildua sortzea eragin zutenak— antzestu zituzten herritarrek. Aktore gehientsuenentzat lehenengo antzerkiesperientzia izan zen, eta lau emanaldi egin zituzten: 26an (aurrestreinaldia), 27an bi saio, eta 28an Udiarragako Andre Mariaren ermitan egindako emanaldia. Gidoi txit egokia eta antzezlanaren zuzendaritza Jose Luis Urrutiari zor dizkiogu, eta Txarly Marques produkzio-lanaz arduratu zen; biak ere JYT Kreatibos taldeko kideak dira. Lau saio egin zituzten guztira, eta mila pertsona inguruk udalerraren historiaren berri izan zuten, oso modu didaktikoan gainera.

REPRESENTACIÓN POPULAR “LA FUNDACIÓN DE VILLANUEVA DE MIRAVALLÉS”

Ugao-Miraballes cerró el pasado mes de noviembre los actos conmemorativos del 635 aniversario de la fundación de la villa con la puesta en escena de un montaje teatral sobre los hechos ocurridos en el año 1375 que dieron como resultado la fundación de nuestra villa.

La obra fue representada por vecinos y vecinas de la localidad, la mayoría sin experiencia, el 26 (preestreno), el 27, en doble sesión, y el 28 de noviembre en la Ermita de Ntra. Sra. De Udiarraga. El acertado guión y la dirección de la obra corrieron a cargo de Jose Luis Urrutia y las tareas de producción fueron asumidas por Txarly Marqués, ambos de JYT Kreatibos. En total se realizaron 4 pases en los que un millar de personas pudieron conocer de una manera muy didáctica la historia del municipio.

VILLANUEVA DE MIRABALLESEN SORRERA

LA FUNDACIÓN DE VILLANUEVA DE MIRABALLES

Labur esanda, Villanueva de Miraballesen sorrera da duela 635 urte —hau da, XIV. mendearen erdialdea pasata— gertatu ziren jazoeretan oinarritutako antzezlan, eta gertaera haien ondorioz sortu zen gaur egungo Ugao-Miraballes. Hala ere, antzezlanaren garapenari erreparatuta, haren esanahia haratago dago, definizio soil batek adierazten duena baino, eta antzezlan bera ere gainditzen du.

Oso zaila da hitzen bidez adieraztea hilabetetako prestaketa-lanetan, entseguetan, eta, azkenean, hiru egunetan egindako lau emanaldietan bizi izandako guztia. Abentura zoragarri horretan parte hartzeko zoriona izan ez dutenei esplikatzeko, sentsazioak, bizipenak, aurkikuntzak eta emozioak transmititzeko gaitasuna izan beharko genuke, eta hain sakonak eta bame-bamekoak direnez, batzuetan nire buruari ere ezin dizkiot azaldu.

Miresgarriena da, ordea, nire irudipen hori ez dela soilik nire irudipena, baizik eta talde osoarena; eta ez naiz ari hiru edo lau pertsonen buruz, izan ere, ia 50 pertsona dira, eta adin desberdinetakoak, gainera. Nire aldetik esan dezaket haiekin izan dudana asteroko harremana oso atsegina izan dela, eta irakaspen bikainak bizi izan ditudala.

Antzezlanaren gidoilari naizen aldetik, sarritu sentitu naiz testuari erantsi dioten balioagatik. Zuzendaritzaren ardurua dudana aldetik, lagun, aholkulari eta gidari sentitu naiz, zuzendari baino gehiago; izan ere, taldekide bakoitzaren jarrerari, buru-belarri aritzeari, eginahalari eta gainditzeari esker, kalbarioa izan zitekeena bide erraza, atsegina eta alaia izan da.

Gehiagi ez luzatzeko, agurtu nahi ditut, bihotz-bihotzez eta eskerronez, parte hartu duten aktore guzti-guztiak; haien zuzendari izatea ohore handia izan da. Benetan diot, itxurazko gidoi bat bikaina eta aparta izatea lotu dute.

Jose Luis Urrutia

De manera breve, La Fundación de Villanueva de Miraballes podría definirse como una obra teatral en torno a los acontecimientos que, hace ahora 635 años, es decir, pasado el ecuador del siglo XIV, dieron lugar a la fundación de la actual Ugao-Miraballes. Sin embargo, lo que esta obra encierra en lo que a su desarrollo se refiere, va más allá de una simple definición, incluso más allá de la misma obra.

Lo vivido en estos meses de preparativos, ensayos, y finalmente cuatro representaciones en tres días, difícilmente puede ser descrito con palabras. Para explicarlo a alguien que no haya tenido la gran fortuna de participar en esta maravillosa aventura, habría que ser capaz de transmitir sensaciones, vivencias, descubrimientos y emociones tan profundas e íntimas que a veces ni yo mismo consigo a mi mismo explicarme.

El gran prodigio ha sido que esta impresión no es sólo mía, sino de todo el grupo, y no hablo de tres o de cuatro, sino de casi 50 personas que, para más mérito, son de edades dispares. Personalmente, puedo decir que la convivencia semanal con ellos me ha proporcionado un tremendo placer y unas buenas enseñanzas.

Como guionista de la obra me he sentido recompensado por el valor que han sabido aportar al texto. Como responsable de la dirección de la misma, más que director me he sentido compañero, asesor, guía, porque la actitud, la entrega, el esfuerzo, la superación de cada uno y cada una de ellos y ellas ha convertido lo que podría haber sido un calvario en un camino fácil, agradable, alegre.

Para no extenderme, quiero acabar enviando mi saludo, repleto de cariño y agradecimiento, a todas y cada una, a todos y cada uno, de las actrices y actores que tuve el gran honor de dirigir. Ellos, y lo digo con total sinceridad, hicieron grande y brillante un guión aceptable.

Jose Luis Urrutia



Erakusketaren helburua izan da omenaldia egitea, Bilboko hiribilduari ausardiaz pultsua egin eta Don Juan infanteari Villanueva de Miraballes sortzea eskatu zioten pertsonai, eta, aldi berean, zazpi mendere horietan herriaren bilakaeran eta garapean nolabait lagundu duten guztiei jendaurrean eskerrona adieraztea.

Con esta muestra se pretendió rendir homenaje a las personas que echaron un valiente pulso a la villa de Bilbao solicitando ante el infante Don Juan la fundación de Villanueva de Miraballes y, de manera paralela, mostrar un agradecimiento público hacia quienes, de una u otra manera, han aportado a lo largo de estos siete siglos de historia su granito de arena a favor de la evolución y desarrollo del pueblo.

HIRIBILDUAREN 636. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

Urtero egin ohi den bezala, martxoaren 4an hiribilduak bere urtemuga ospatu zuen; 636 urte igaro dira, alajaina, sortu zenetik (1375-2011). Udaleko Kultura Sailak, Historia Ezagutzeko Zentroarekin batera, ekintza-egitaraua gauzatu zuen martxoaren 4tik 6ra bitarteko asteburuan, inauteriak eta emakume nekazarien XI. Nekazaritza Azoka ospatu ziren egunetan, hain zuzen.

CELEBRACIÓN DEL 636 ANIVERSARIO DE LA VILLA

Como viene siendo habitual la villa celebró el 4 de marzo su cumpleaños, ni más ni menos que 636 años de su fundación (1375-2011). El área de cultura del Ayuntamiento, junto con el CIH, llevaron a cabo un programa de actos para el fin de semana del 4, 5 y 6 de marzo, coincidiendo con carnavales y la XI. Feria Agrícola de mujeres ganaderas.



Ekitaldiak martxoaren 4an hasi ziren: Jane jauregian Erdi Aroko lanbideen VIII. marrazki-lehiaketa egin zen, eta adin guztietako 93 hurrek parte hartu zuten.

Martxoaren 5ean, eguerdian, Udiarragako kalea Erdi Aroko pertsonaia historikoz beteta zegoen, eta 12:30ean, 635. urteurrenako herri-antzerki arrakastatsuko aktoreek emanaldi bat egin zuten kalean, Don Juan infantearen gorteko aholkulariari egindako harrera antzetzuz. Aholkularia zaldi gainean iritsi zen, musikariekin, bufoiekin eta armagizonekin batera, hiribilduaren eguneroko bizimodu lasaia aztoratuz eta oinezkoen atentzioa erakarritz.

14:30ean Erdi Aroko kalejira batek alaitu zuen jate-terako bidea, eta bazkari tipikoa egin zuten, garai hartako elikagaiak dastatuz. Arratsaldean, gazteek

La programación comenzó el 4 de marzo con la exposición en el Palacio Jane del VIII. Concurso de dibujo medieval "Los oficios del medievo", en la que participaron 93 niños y niñas de diferentes edades. El día 5, al mediodía, la calle de Udiarraga se llenó de personajes históricos medievales y a las 12:30 los actores y actrices de la exitosa Representación Popular del 635 aniversario recibieron en una actuación teatral callejera al mismísimo Consejero de la Corte del Infante Don Juan. La llegada del Consejero a caballo y acompañado de músicos, bufones y hombres de armas, irrumpió con la vida tranquila y cotidiana de esta villa, llamando la atención de los viandantes. A las 14:30 una kalejira medieval animó el recorrido hasta el restaurante donde se celebró la típica comida





musika-animazioaz gozatzeko aukera izan zuten herriko plazan, ezpatari baten eta emakume noble eder batzuen gidaritzapean. Eta, plazan bertan, 19:30ean, oilasko labelduna dastatu zuten. Bien bitartean, Udiarragako ermitan bi emanaldi egin zituzten (18:00etan eta 21:00etan) azaroan herriantzerkia ikusi ez zuten guztiei aukera berri bat emateko. Berriz ere, antzezlanak berebiziko arrakasta izan zuen, eta parte-hartzaileek ikusleen eskerrona jaso zuten. Gidoiari eta entseguei berriz ere heltzea gogorra izango zen, hilabete batzuk lehenago egindako lanaren ostean, batez ere Ibilgurako neskentzat, urteroko emanaldiaren prestaketa-lanak egiten hasiak baitziren. Eskerrik asko guztioi, zuen ahaleginagatik eta gogo handiagatik!

medieval con viandas de la época. A la tarde los mas jóvenes pudieron disfrutar en la plaza de una animación musical dirigida por unas bellas nobles y un espadachín. Y a las 19:30 tuvo lugar, en el mismo sitio, la degustación de pollo de label asado. Mientras tanto la ermita de Udiarraga albergaba dos nuevos pases de la Representación Popular del pasado mes de noviembre (a las 18:00 y a las 21:00 horas) para dar la oportunidad de disfrutar de esta representación a todos/as aquellos/as que no pudieron hacerlo en noviembre. Un vez más la obra fue un éxito y el público quedo muy agradecido con los participantes de la misma. Volver a retomar el guión y los ensayos debió de ser muy duro despues del trabajo realizado unos meses de atrás, sobretodo para las chicas de Ibilgura, las cuales comenzaban los preparativos para su obra anual ¡Muchas gracias atodos y todas por vuestro esfuerzo y entusiasmo!

UDIARRAGAKO ERMITA KULTURA-ONDARE IZENDATU DUTE

Martxoaren 6an, Nekazaritza Azoka egin zen egunean, ermitak bere ateak zabalik izan zituen, eskuarki itxita egoten den monumentu hori bisitatzeko aukera emateko. Ermita barruko ondarea erakustez gain, liburuxka batzuk banatu ziren, kultura-ondare izendatu berria dela jakinarazteko.

2011ko urtarrilaren 18an, Gobernuak kultura-ondare izendatu zuen Udiarragako ermita, eta monumentuen kategorian jarri zuen. Hiribilduaren erdigunean dagoen ermita hori eraiki zuten, hain zuzen, jatorrizko eraikina 1776an eraitsi ondoren. Jatorrizko ermita hura Udiarraga esaten zaion mendian zegoen, Ugao-Miraballesko udal-barrutian. Egungo eraikina, Juan de Iturburu arkitektoak egina, 1779an amaitu zen. Berrehun urtetik gorako iraunaldian, aldaketa batzuk egin dira ermitan; esate baterako, hegoaldean erantsitako erretoretze berri samarra. Oraindik orain egindako eraberritzean, kendu egin dute atxikitako eraikina, aurrealde guztia inguratzen zuena.

LA ERMITA DE UDIARRAGA DECLARADA BIEN CULTURAL

El 6 de marzo, coincidiendo con la Feria Agrícola, hubo jornada de puertas abiertas de este monumento normalmente cerrado al público, no solo para mostrar el patrimonio que alberga, también para difundir mediante un folleto, la reciente declaración como bien cultural.

El 18 de enero de 2011 fue calificada por el Gobierno como Bien Cultural con la categoría de Monumento. La ermita, situada en el casco de la villa, es posterior a la primitiva demolida en 1776 y que existió en el monte conocido como Udiarraga dentro del término de Ugao-Miraballes. La actual es obra del arquitecto Juan de Iturburu, terminada en 1779. En sus más de 200 años de existencia, ha sufrido alguna transformación como la casa cural que se le adosó al sur en época bastante contemporánea. En una reforma reciente se ha eliminado la construcción adosada, que envolvía toda la cabecera.

Guía de la naturaleza de Ugao-Miraballes

Las aguas del Río Nervión limpias a su paso por Ugao-Miraballes

El día 3 de junio el CIH organizó un grupo de trabajo para realizar un análisis exhaustivo del estado de las aguas del río Nervión a su paso por la villa. El material necesario para llevarlo a cabo fue facilitado por el Gobierno Vasco a través del proyecto Ibaialde y 15 chicos del Centro Formativo Otxarkoaga hicieron las labores químicas oportunas para el muestreo. El grupo junto con dos monitoras del CIH se acercó al río, a la altura del campo de fútbol, y observó atentamente las características físicas y biológicas. A través de análisis químico se analizó la calidad de sus aguas, la presencia de basuras y las construcciones históricas de interés.

Estos son los principales resultados obtenidos:

PARÁMETROS		VALOR
Nitratos	0 ppm	Correcto
Fosfatos	2 ppm	Correcto
Bacterias coliformes	Normal	Correcto
Temperatura	16,5°C	Correcto
Disolbatutako oxigenoa	4 mg/l	Correcto
Oxígeno disuelto	39%	Escaso
PH	9	Escaso
Turbidez	0 jtu	Correcto
Amoniaco	0 ppm	Correcto

RESULTADO FINAL: Estado físico-químico del agua ÓPTIMO.



*ibai*alde es un proyecto de Educación Ambiental nacido en 1996 con el objetivo de difundir los ecosistemas fluviales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. A través de él se quiere aumentar el conocimiento sobre las características y problemática de los ecosistemas fluviales, tratar de concienciar sobre la importancia

que el agua tiene para la vida y sensibilizar para la conservación del río y sus riberas.

El proyecto *ibai*alde pretende que las personas participantes, pertenecientes o no a grupos organizados (ecologistas y naturalistas, deportivos, escolares, de tiempo libre, ayuntamientos,...) entren en contacto directo con el medio que les rodea, estudiando de forma activa y experimental un ecosistema concreto.

Durante los primeros meses de cada año se toma contacto con los posibles grupos participantes, para conocer el río que les gustaría estudiar e ir tejiendo la red fluvial a analizar en *ibai*alde.

Ugao-Miraballeseko natur gida

Nerbioi ibaiko urak, garbiak Ugao-Miraballeseko

Ekainaren 3an Historia Ezagutzeko Zentroak lantalde bat antolatuz, Nerbioi ibaiko urak aztertzeko, hiribildutik barrena pasatzean. Azterketa egiteko materialak Eusko Jaurlaritzak jarri zituen, Ibaialde proiektuaren bidez, eta Otxarkoaga Prestakuntza Zentroko 15 gaztek laginketarako bete beharreko zereginak gauzatu zituzten. Lantaldeko kideak eta Historia Ezagutzeko Zentroko bi monitorea joan ziren, futbol-zelaiko parean dagoen tartera, hain zuzen, eta ibaiaren ezaugarri fisiko eta biologikoei erreparatu zieten. Análisi kimiko batzuen bitartez, uraren kalitatea aztertu zuten, eta zaborren presentzia eta eraikin historiko interesgarriak kontuan hartu zituzten.

Emaita nagusiak hauek dira:

PARAMETROAK		BALIOA
Nitratoak	0 ppm	Zuzena
Fosfatoak	2 ppm	Zuzena
Bakteria koliformeak	Normalak	Zuzena
Temperatura	16,5°C	Zuzena
Disolbatutako oxigenoa	4 mg/l	Zuzena
Oxigenoaren asetasuna	%39	Urria
PH	9	Urria
Uhertasuna	0 jtu	Zuzena
Amoniakoak	0 ppm	Zuzena

AZKEN EMAITZA: Uraren egoera fisikoa eta kimikoa: EZIN HOBEA.

*ibai*alde ingurumen-hezkuntzako proiektua da, 1996an sortua, Euskal Autonomia Erkidegoko ibai-ekosistemak ezagutarazteko. Proiektu horren bidez lortu nahi da jendeak ibai-ekosistemen ezaugarriak eta arazoak hobeto ezagutzea, urak bizitzarako duen garrantziaren kontzientzia hartzea, eta ibaien eta ibaiertzen kontserbaziorako sentsibilizatzea.

*ibai*alde proiektuaren asmoa da parte-hartzaile guztiek, bai talde antolatuen parte direnek (ekologistak eta naturalistak, kirol-taldeak, ikastetxeak, aisialdeko taldeak, udalak...) bai gainerakoek, ingurumenarekin harreman zuzena izatea, ekosistema jakin baten azterketa aktibo eta esperimentalaren bitartez.



Urtero, urtearen lehen hilabetetan, parte har dezaketen taldeekin hartu-emanak hasten dira, ikertu nahi duten ibaiaren zein den jakiteko, eta *ibai*alde proiektuan aztertuko den ibai-sarea osatzeko prozesuan aurrera egiteko.

Hiru Hodiko iturriaren enparantza.
Plaza de la Fuente de los Tres Caños.





zure txokoa tu espacio

Zerbait esan nahi diguzu, iradokizuneren bat eman, kexaren bat adierazi?
Lagun egiguzu hobetzen. Idatzi helbide honetara:

Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroa. Jane Jauregia.
Udiarraga kalea, 38. 48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia).

Posta elektronikoz ere bai: kultura-etxea.ugao@bizkaia.org edo gure
web orriaren bidez: www.ugao-miraballes-museoa.org

¿Quieres decirnos algo, tienes alguna sugerencia
o deseas expresar alguna queja?

Ayúdanos a mejorar. Escríbenos a esta dirección:

Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes.
Palacio Jane. C/ Udiárraga, 38. 48490 Ugao-Miraballes (Bizkaia).

También por correo electrónico: kultur-etxea.ugao@bizkaia.org
o a través de nuestra página web: www.ugao-miraballes-museoa.org



ZENTROAREN ORDUTEGIAK:

Jendeaurreko ordutegia:

Astelehenetik Ostegunera: 10:30tik 15:00ra.

Bisita gidatuak:

Erreserbak aldeaz aurretik egin behar dira

INFORMAZIOA ETA

BISITA GIDATUEN ERRESERBA:

94 648 07 04 / ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

www.ugao-miraballes-museoa.org

HORARIOS DEL CENTRO:

Horario de atención al público:

De lunes a jueves: de 10:30 a 15:00 h.

Visitas guiadas:

Con reserva previa

INFORMACIÓN Y RESERVA

DE VISITAS GUIADAS:

94 648 07 04 / ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

www.ugao-miraballes-museoa.org

Historia Ezagutzeko Zentroa Centro de Interpretación Histórica



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

Zure datu pertsonalak betetakoan, "Ugao-Miraballesko Lagunak"
taldeko kide izango zara.

Al cumplimentar tus datos personales pasarás a formar parte del grupo
"Ugao-Miraballesko Lagunak".



Datu pertsonalak / Datos personales

Izena/Nombre: _____ Abizenak/Apellidos: _____

Jaiotze data/Fecha de nacimiento: _____ Helbidea/Dirección: _____

_____ Hertia/Población: _____ PK./C.P.: _____ Herraldea/Provincia: _____

Posta elektronikoa / Correo electrónico: _____ Telefonoa/Teléfono: _____ Lanbidea/Profesión: _____

OHAR GARRANTZITSUA:

Zuen artikulua eta/edo "Lagunak" fitxa guri helarazteko, gure web orria erabil dezakezue, Ugao-Miraballesko HEZren
bulegoan utz ditzakezue, edo hona bidali:

"Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroa", Jane jauregia • Udiarraga k/, 38 • 48490 UGAO-MIRABALLES (Bizkaia)
ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

NOTA IMPORTANTE:

Para hacernos llegar vuestros artículos y/o ficha de "Amigos/as" podéis hacerlo a través de nuestra página web,
entregándola en la oficina del C.I.H de Ugao-Miraballes o remitiéndola a:

"Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes" Palacio Jane • C/ Udiárraga, 38 • 48490 UGAO-MIRABALLES (Bizkaia)
ugao-miraballes-museo@ortzadar.es

LEGE OHARRA: Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 LOko 5. artikulua betetzeko, jakinarazten da jasotako datuak fitxategi batean bilduko direla, eta hori baliagarria izango dela inguruneaz eta Ugao-Miraballesko Historia Ezagutzeko Zentroan gertatzen diren berriez informazioa bidaltzeko. Fitxategiaren ardura Ortzadar S.L enpresarena da. Eskubidea duzu zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta haien tratamenduaren aurka egiteko, eta, horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko duzu helbide honetara: Ortzadar S.L, Landabaso enparantza, 12-3. B; 48015 Bilbo (Bizkaia).

AVISO LEGAL: En cumplimiento del Art. 5 de la L.O. 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se informa que los datos recogidos, serán incluidos en un fichero que servirá para el envío de información sobre el entorno y las novedades producidas en el Centro de Interpretación Histórica de Ugao-Miraballes. El responsable de este fichero es Ortzadar S.L. Usted tiene derecho a acceder a sus datos, a rectificarlos, a cancelarlos y a oponerse a su tratamiento, mediante solicitud por escrito dirigida a Ortzadar S.L, Plaza Landabaso, 12-3ºB; 48015 Bilbao (Bizkaia).